

— 47 —



MOTOTS

Ets Its Ots Uts Ats
its ats ots ets uts

Ez itz e-gin, ez ha-da nai
uts e-gin.

A-ber-ats i-za-te-a ba-ño,
i-zen o-na o-be-a-go.

A-ber-a-tsa ge-zur u-tsa, be-

a-r-tsu-a a-mets u-tsa.
A-r-ats gor-i goiz ai-ze.
Goiz gor-i a-r-ats eur-i.
Itsas-gi-zo-nar-en e-maz-tea,
goi-ze-an se-na-r-dun, a-r-a-
tse-an a-la-r-gun.
I-tsa-so-ak er-e-kak, i-tur-
i-ak e-ta i-ba-yak ir-in-tsi.
Lots gu-txi du e-na, er-i-ar-
en ja-be.
Las-toz-ko i-sa-tsa due-nak,
a-tzer-a be-gir-a.
Na-gi-a, be-ti lan-tsu.
I-sats lu-ze-dun zal-dia.
A-mets e-gin o-men zu-en.
A-kats aun-di-a e-gin di-o.
Er-auts ber-o-ber-o-a ze-
go-en.
Jan zu-en gu-zia sits ta bits.



TXEPETX

Atx Etx Otx Utx Itx
etx itx atx otx utx

Ar-di txi-ki-a be-ti bil-dotx.
Mo-ko txor-otx ta zu-ze-na du
Txotx-ga-ñe-an ze-gon txe-
petx lir-a-ña.

Sa-gar au min-katx ta gor-
di-ña da.

Nes-katx au o-so a-zi da.

at et ot ut it

E-gar-i da-go-a-nar-en-tzat
ur loir-ik ez.

Nai de-ke-na ir-et-zat, bes-
ter-en-tzat.

Nor-ber-a ber-e-tza-ko ez da-
na, ez da i-ñor-en-tzat.

A-ma, e-ka-tzu mu-xu bat.

Be-giz jo-a dau-kat.

Nik ai-ta ba-det.

Sa-gar bat e-man dit.

Gaur bi-al-du-ko di-zut.

E-men e-ka-r-i diz-ki-tzut.

ltz, ntz, rt, rz, sk, st,

Beltz guz-ti-ak ez dir-a i-ka-
tzak.

Zar-ta-gi zań-ak per-tzar-i:
o-a or-ti-kan beltz or-i.

Za-biltz zu-zen be-ti.

U-me-ak zintz e-gin zu-en.

Ai-tar-en antz gu-txi du.

Bart a-mets e-gin det.

Za-la-part e-deń-a a-ter-a di-
gu.

On-tzi-ak zart e-gin du.

E-men-txen da-kańz-kit.

Aus-te-an krask e-gin zu-en,

Kar-ask kar-ask ja-ten ar-i
zan txa-kuř-a.

O-be da txor-i bat es-kuan,
ta ez bost ezkuřean.

Ir-ist e-gin ta i-a er-or-i zan.



rk

Nork ber-e o-pi-lar-i i-ka-tza.
Nork nor-i, zar-ta-gi zañ-ak
per-tzar-i, u-ti-kan beltz
or-i.

Nork ber-e go-gor-a e-gi-ten
du e-txe-a.

Nork da-bi-len bi-de-ak añ-
a-pa-tu oi du.

Ark ekañ-iko du.



AMAR ZENBAKIEN IKURAK

Zenbaki guztiak idazteko amar zenbaki-ikur baizik
bea ez dira.

ONA EMEN BEREN IZEN TA IKURAK:

Bat	idazten da	1
Bi	» »	2
Iru	» »	3
Lau	» »	4
Bost	» »	5
Sei I	» »	6
Zazpi . . . II	» »	7
Zortzi . . III	» »	8
Bederatzi	» »	9
Uts	» »	0

ARTZAYA ETA ARDIAK.

Belañez ongi jantzitako muño alai batean Martin artzai gazte batek bere artaldetxoa zaitzen zuen.

Egun batean asmo gaizto au burura etorri zitzayon: —Anayak! Atozte onontz laxterka, atozte bereala laguntza ematera!—deadañ e-giten du bere indar^{ak} guztiz. —Otso aundi bat menditik dator nere ardi gaxoak jatera.—

Bereala anayak ba-dijoaz beren makilak eramanez,

otsoak egin zezaken kalteagatik bildurez.

Irixten diranean ez dute inun otsorik arkitzen, eta alde egin zuelakoan beren artaldetara itzultzen dira.

Biaramonean berdin gertatu zitzayen, bañan itzuli ziran Martin, beren anaya, gezuřetan zebilela gogoan eramanez.

Andik egun batzuetara, egitan otsoa menditik jetxizan eta ordun izan ziran Martintxo'ren lařiak.—Otsoa datorřela, atozte nigana, ařen ta ařen!—zion gizajoak karaxika. Bañan bere anayak, gezuřetan len bezela

zebilelakoan, etzioten sinistu eta laguntzik ematera beragana etorri etziran.

Bitartean otsoa artaldean sarturik asi zan ardi guztiak il eta jaten, Martin gezurtik karaxi ta negar alperik egiñaren, laxter artalde guzia galduaz.

Umiak! Izan beti au gogoan. Esan non-nai eta beti egi utsa eta ez esan beñere gezurik. Gezurtiari, inoiz egia esanaren, etzayo sinisten, eta onela, askotan, bere buruari kalte egiten dio.

Ez ba beñere aztu Martin gezurtiaren ipui eder au.

ASTEKO EGUNAK

Astelena	Ostirala
Asteartea	Larunbata
Asteazkena	Igandea
Osteguna	

IĻAK

Ilbeltza	Uzta
Otsaila	Dagonila
Epaila	Agoŕa
Joraila	Uria
Oriila	Azaroa
Garagarila	Lotazila

URTEAROAK

Udaberia	Udazkena
Udara	Negua



UDABERÍA

Astea astearen ondoren
aldia bereala igarotzen da.
Negua joan zan eta Udabería
etorri zaigu: Jorálan gera.
Mendi goituetako elurak
poliki poliki urtu dira, egur-
aldia asko epeldu da eta
eguna orain bi ilabete baño
askoz luzeagoa da. Oraindik
eguzkia ez da agertzen egu-
nero; maiz ebia egiten du

eta noiz-edo-bein aizearen txistua entzuten degu.

Bañan loreak azaltzen asi dira; muño, aldapa, txoko ta bazterak lore ori ta zuriz betetzen ari dira. Ta bai usai edera dutela! Zuaitzak oraindik ostorik ez dute, bañan kima berriak adaretan agertzen dira. Zelaitxoetan, emen eta an, ikusten ditugu artalde txuriak beren ardiak belar gozoa jaten ari dirala.

Ain aldi luzaroan ixilik egon diran txoritxoak entzuten asten gera; kukua nun nai kukuka ari da, eta ormatxori, txigu ta txan-

txangorien txorotxioak atsegiñez entzuten dira. Beren kabitxoak egin dituzte, batzuetan arauztxo politak daude, eta beste batzuetan txori jayo-berri batzuek aboa txabalik arkitzen dira: beren gurasoak zomoro txikiak ekañtzen dizkate jan dezaten.

Mitxiñikak beren margo ederñun egaz batetik bestera dabiltz gure begien zoragari. Loretik lorera erleak beren lanean dabiltza.

Enarak Egoaldetik, neguan ere beroan diran tokitatik, itzuli dira beren txioaz aizea heterik.

Onetsia izan dedila gure
gogoak ainbeste alaitzen di-
tuen Udaberri edera!

IKASGAYAK

Zein da urtearen lenengo
urtearoa? Noiz asten da
udaberria? Noiz bukatzen da?
Udaberria negua bezin otza
al da? Zuaitzak oraindik os-
togabe al daude? Zein ari
dira abesten basoetan? Zer
ari dira txoriak? Zer txori
ikusten ditugu baso eta men-
dietan?

— 53 —

BETI EUZKELDUN!

Euzkeldun jayo nitzan
Euzkelduna azi,
Euzkera utsik amak
Ziran erakutsi;
Euzkera laztan maite
Zabiltz nigaz beti,
Euzkera ilezkero
Ez det nik nai bizi.

Afese-Beitia.

EUZKEL-AGAKA


IZENAK


A, a	=a
B, b	=bi
D, d	=de
E, e	=e
G, g	=ga
I, i	=i
J, j	=ja
K, k	=ka
L, l	=lol
Ļ, Ļ	=iĻo
M, m	=mi
N, n	=non
Ñ, ñ	=iño
O, o	=o


IZENAK

P, p	=pi
R, r	=ur
Ř, ř	=ur
S, s	=sus
T, t	=test
Ṫ, ṭ	=iṭe
Ts, ts	=atsels
Tx, tx	=txe
Tz, tz	=atzeltz
U, u	=u
X, x	=axa
Y, y	=ya
Z, z	=zuz

Toki batzuetan beste igidin batzuek ere, erabiltzen dituzte: ā (ilāe), h (ha) eta abaí.







TOLOSA'n
LOPEZ'tar E.'ren etxean

Pluteo

30